

SEARCH...

OSTEGUNA 16,
URTARRILA
2014

GASTROFESTA

Gastronomia arteaz gain,
festa bat ere badelako.

BERRIAK	JATETXEAK	SUKALDARITZA	ARZAK-ETIK	JANARI-DENDA	ISTORIOTXOAK	
AZKEN BIDALKETAK	BARAZKI KREMA ARINAK					

BERRIAK JANARI-DENDA UPELTEGIA



KALAKAN: "GORA GURE SAGARDO BERRIA!"

Español

Euskara

URT 16, 2014 | ORAITZ GARCÍA RECONDO | NO COMMENT | BERRIAK, JANARI-DENDA, UPELTEGIA

Argazkia: Sagardoaren Lurraldea

Atzo, urtarrilak 15, ospatu zen Sagardo Berriaren Eguna 2014 Astigarragan. Bertan, txotx denboraldi berria jarri zen martxan eta denboraldi berri honen xehetasunak emateaz gain, 2013ko sagardo uztaren ezaugarriak azaldu zituzten. Aurkezpen ofizial eta ohiko sagarrondoaren landatzearen ondoren, Kalakan taldeak izan zuen lehen kupela ireki eta lehen sagardo tragoxka edateko ardura, lau haizetara zabalduz: "Gora gure sagardo berria!"

Ekitaldia eguerdiko 12.00tan hasi zen Astigarragako Sagardoetxean eta Euskadi Irratiko kazetari Maider Seguiolak aurkeztu zuen. Hitza hartzen lehena, Astigarragako alkatea, Andoni Gartzia, izan zen. Honek 2013a Sagardoetxearentzat urte bikaina izan zela azpimarratu zuen, eta argi utzi zuen sagardoaren munduan hobekuntzak bilatzen jarraituko dutela, sagardoari balio erantsia gehituz. Honekin batera azpimarratu zuen, azken urteotan, Sagardo Berriaren Egun hau herritarrei gerturatzeko egindako lana, eurek baitira txotx denboraldiko protagonista nagusienetako batzuk eta eurek ere badutelako txotx denboraldiaren irekieraz gozatzeko aukera.

Jon Peli Uriguen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen, Landa eta Turismo diputatuaren txanda izan en jarraian. Jon Pelik, sagardoaren kalitatean eman diren aurrerapausoak azpimarratu zituen. Hori lortzeko, Fraisoron egindako lana goraipatu zuen, sagardoaren dastatze profesionalaren plantaren ezarpenarekin. Honekin batera, Gipuzkoako ostalaritzari deia egin zion, euren kartetan ardo eskaintza zabal duten bezala, sagardo aukera zabala ere izan dezaten, Gipuzkoako sagardogileen lana ere ezagutzera ematen laguntzeko.

TOP POSTS

ARZAK-ETIK DONOSTIA JATETXEAK

ARZAK, BAKARRA MUNDUAN
ORAITZ GARCÍA RECONDO | URR 14, 2013

Intxaurrendotik, mundura, eta mundutik, Intxaurrendora. Arzak-ek ehun urte baino gehiago...

BERRIAK

BAKAILAO ETA ESNE-
ARKUME JARDUNALDIAK
ORAITZ GARCÍA RECONDO | AZA 28, 2013

Iragan ostiralean, azaroak 22, Gastrofestak daraman ibilbide motz baino oparo...

Erakundeen txanda amaitzeko, Peli Manterola eta Arantxa Madariaga, Eusko Jaurlaritzako kideen txanda izan zen. Pelik adierazi zuen, sagardoa euskal produktu baloratu bat dela, nahiz eta bere ekoizte prozesuak modernizatu, tradizioan oinarritzen jarraitzen duena, hori bai, sagardogileei deia egin zien, Euskal Herriko sagarrondoak landatzeko apostua eginez, euskal sagarrak erabil zezaten euren sagardoaren ekoizpenean. Arantxa Madariagak, sagaroak euskal turismo etnogastronomikoan duen garrantzia azpimarratu zuen, bere presentzia geroz eta garrantzitsuagoa da eta kanpoko turistak erakartzen ari da.

Erakundeen ostean, Joxe Angel Goñi, Sagarduneko ordezkariaren txanda izan zen, txotx denboraldi berri honi begirako hainbat datu eman zituelarik, sagardoaren inguruan:

- Sagardoa: kolore horixka du, txinparta fina eta mikatz puntu batekin. Badu puntu freskagarria.

- Sagarrak: Udaberri eskax baten ondorioz, kanpoko sagarra ekarri da, 10 milioi litro ekoiztera iristeko.

Azkenik, Iparraldeko Kalakan folk taldeak, eskerrak eman zituen beraiengan jartzearen txotxaren denboraldia martxan jartzeko ardura. Azpimarratu zuten, Kalakanek beti izan duela harremana sagar eta sagardoarekin, hein handi batean, Madonnarekin batera kantatu zuten "Sagarrak Jo" abestiaren bertsioari esker. Aipatu zuten Iparraldean ez dagoela sagardoaren inguruko hainbesteko tradizioirik, baina Hegoaldeko sentimendu hori ulertu eta sentitzen zutela. Amaitzeko, eurentzat Sagardo Berriaren Eguneko protagonistak izateak ohore handia zela adierazi zuten.

Aurkezpen instituzionalaren ondoren, eta tradizioak agintzen duen bezala, Kalakanek sagarrondo bat landatu zuen Sagardotxearen ondoan kokatua dagoen sagastian. Behin landatua, gonbidatu guztiak Alorrenea sagardotegira joan ziren, lehen kupela ireki eta sagardotegiko lehen menuaz gozatzeko. Ohorezko aurrekuaren ondoren, Kalakan taldeko kideek, lehen sagardo tragoa edan zuten, "Sagarrak jo" kantatu eta lau haizetara zabalduz: "Gora gure sagardo berria!"

TAGS: ASTIGARRAGA KALAKAN SAGARDO-BERRI SAGARDOA SAGARDOAREN- LURRALDEA SAGARDOETXEA TXOTX

BERRIAK JANARI-DENDA UPELTEGIA

SAGARDO BERRIAREN EGUNA 2014, TXOTX IREKIERA

ORAITZ GARCÍA RECONDO | URT 14, 2014

Urtarrilaren 15ean, Sagardoaren Lurraldeak 2013ko uztaren eta sagardo berriaren ezaugarriak aurkeztuko...

BERRIAK

RICARDO REMIRO, HONDARRIBIAKO GAZTA IRABAZLEA

ORAITZ GARCÍA RECONDO | URR 28, 2013

Eulateko Ricardo Remiro-k irabazi zuen Hondarribiako Artzai Gaztaren XII. Lehiaketa,...

SUKALDARITZA

ZAINZURI ARRAUTZAZTATUA

ORAITZ GARCÍA RECONDO | ABE 11, 2013

Zainzuriak egosi, freskoak badira, eta ura ongi kendu. Arrautza bat...

ABOUT ORAITZ GARCÍA RECONDO



Aficionado a la gastronomía, periodista y cocinillas. Ha conocido la gastronomía desde pequeño, gracias a la influencia de su padre. Licenciado en periodismo, afronta el reto de continuar con la labor realizada por su padre.



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



II. AHATEAREN ASTEA



SSG-EUSKADI BASQUE COUNTRY-KO INAUGURAZIO AFARIA



AFARI LIRIKOAK ITZULI DIRA ABADES TRIANARA

Utzi erantzuna

Zure helbide elektronikoa ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena *